

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure negozio-ereduaren oinarria bezeroak dira, eta horregatik funtsezkoa da argi definitzea zein den gure bezeroa. Gure aplikazioa batez ere gazteei eta ikasleei zuzenduta dago, bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleei. Talde horiek etorkizun profesionalari buruzko erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzte, eta askotan ez dute nahikoa informaziorik edo orientaziorik.

Bezero horien ezaugarri nagusiak honako hauek dira: 16 eta 30 urte bitarteko pertsonak, teknologiarekin ohituta daudenak, mugikorra eta aplikazioak egunero erabiltzen dituztenak, eta euren etorkizun ekonomikoa eta gustuak kontuan hartzen dituztenak. Gainera, erabakiak hartzerakoan informazio argia eta azkarra baloratzen dute, eta ez dute denbora edo diru askorik gastatu nahi orientazio zerbitzuetan.

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, gure proiektua merkatu segmentatu baten barruan kokatzen da. Nahiz eta aplikazioa jende askok erabil dezakeen, bereziki gazteei eta etorkizun profesionala definitzen ari direnei zuzenduta dago. Segmentu nagusiaren barruan azpi-segmentuak ere bereiz daitezke, adibidez: ikasketak amaitzear dauden ikasleak, lanbidea aldatu nahi duten gazteak edo diru-sarrera handiagoak bilatzen dituzten pertsonak. Hala ere, guztiek partekatzen dute beharra bera: lan egoki bat aurkitzea gustuen eta soldataren arabera.

Gure bezeroak dira behar zehatz bat duten pertsonak. Horrek aukera ematen digu zerbitzua hobeto egokitzeke eta balio handiagoa eskaintzeko. Batzorde ebaluatzaileari argi uzten zaio gure bezeroa nor den, zergatik aukeratu dugun segmentu hori eta nola egokitzen den gure aplikazioa bezero horien beharretara.